

JARDUERAK

Funtsezko jarduerak, negozio-ereduak funtziona dezan egin beharrezko jarduerak dira. Enpresa guztietan hainbat funtsezko jarduera egin behar dira enpresak ondo jardun ahal izateko. Funtsezko baliabideak bezala, jarduera hauek beharrezkoak dira balorezko proposamena egiteko, bezero potentzialarengana iristeko, bezeroekiko harreman eraginkorrak eraikitzeke eta diru sarrerak lortzeko.

Funtsezko jarduerak hirutan banatzen dira: produkzioa (manufakturako enpresa batek definitzen duen jarduera), arazoak konpontzea (bezeroen arazoak konpontzeaz arduratzen dira) eta plataformako edo sareko jarduerak (plataforma teknologikoen edo internetaren erabileran oinarritutako negozioetan dira nagusi).

Gure kasuan, produktu bat beharrean zerbitzu bat denez, ez guke produkziozko izango. Gure helburu nagusia arazoak konpontzea da, horregatik, herrian aurkitu genuen arazo bat konpontzeaz arduratuko gara, zehazki gazteok dugun arazo batean. Honetarako ezagutzaren gestioan oinarrituta egon behar gara, gure bezeroen beharrei erantzuteke, eta etengabeko prestakuntza behar dugu beti berrikuntzak ekarriz. Funtsezko jarduerak guk kudeatuko ditugu baina badira jarduera batzuk beste enpresa batzuen esku jartzea erabaki dugunak, hala nola, garbiketa. Izan ere, enpresak egiteak ez digu balio erantsirik emango.

Horrez gain, gure enpresaren bigarren mailako jarduera, sareko jarduera izango litzateke, izan ere, hein batean zerbitzuaren erabilera interneten oinarrituta dago. Jarduera hau kudeatzeko, aplikazioa ondo kudeatzea, etengabeko mantenua eta hau bertan sustatzea beharrezkoa dugu gure zerbitzua ahalik eta gazte gehienengana iristeko.

Azken Aldia